



Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeen Eskualde Bilera

Maiatzaren 12tik 14ra, 2017
Paris/Saint Ouen



EUROPA, ASIA ETA OZEANIAKO EUSKAL ETXEEN BILERA PARISEN



Honakoaren laguntzarekin: Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza - Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia **LEHENDAKARITZA – GOBIERNO VASCO**



EDUKIEN AURKIBIDEA

- Sarrera
- Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendari Gorka Álvarez Aranbururen agurra eta esker ematea
- Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Marian Elorzaren ongietorri hitzaldia
- Akta
- Ondorioak
- Jarduera paraleloak
- Eusko Jaurlaritzaren sareak
- Eranskinak: Azterturiko programa eta gai zerrenda

SARRERA

Gasteizen 2015eko urriaren 7an eta 9an eginiko Kanpoko Euskal Gizataldeen VI. Mundu Batzarretik sortutako 2016-2019 aldirako Ekintza Instituzionalaren Lau Urteko Planak ekintza zehatz gisa ezartzen du *Mundu Batzarren artean aldizkako bilerak egiten jarraitzea eta hainbat arlotako jardunbide egokiak partekatzea, autofinantzaketa barne, Euskal Etxeek eta Federazioek euskal errealitatea eta kulturak hedatzeko mekanismo gisa duten rola indartzeko.*

Jarraibide horien ildotik, Europako, Asiako eta Ozeaniako Euskal Etxeen bilera Pariseko Eskual Etxean egin zen, 2017ko maiatzaren 12tik (ostirala) 14ra (igandea).

Parisko bileran 8 herrialdeetako 19 Euskal Etxetako ordezkariak parte hartu zuten: Alemania, Australia, Belgika, Espainia, Frantzia, Italia, Japonia eta Erresuma Batua.

Parte hartu duten 19 Euskal Etxeak honako hiri hauetan daude: Bartzelona, Madril, Mallorca, Valladolid, Valentzia (2 Euskal Etxe: Laurak Bat eta Euskaltzaleok), Zaragoza, Bordele, Marseilla, Montpellier, Paue, Paris, Brusela, Londres, Berlin, Munich, Erroma, Sydney eta Tokio.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik (berak antolatu du bilera Pariseko Eskual Etxearekin batera), Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Marian Elorza, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendari Gorka Álvarez Aranburu, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzako teknikari Manu Meaurio eta Zuzendaritza horretako bekadun Mikel Moreno joan dira.

Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeen aurreko eskualde bilera Bartzelonan egin zen, 2014ko martxoaren 28tik (ostirala) 30era (igandea).

Parisko bileran, honako hauek izan dira lehendakaritzaren mahaian eztabaida zuzentzen: Marian Elorza, Gorka Álvarez Aranburu eta Sébastien Daguerre, Pariseko Eskual Etxeko presidentea.

Bilerarekiko jarduera paraleloak ostiralean hasi ziren, Pariseko Eskual Etxean eginiko ongietorriarekin. Ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Parisko egoitza izan zen Avenue Marceau kaleko 11.eko jauregirako bisitaldia egin zen, eta gero afaria Beaurepaire euskal jatetxean, Notre Dame katedraletik gertu.

Bilerako lan saioak larunbatean eta igandean izan ziren, Pariseko Eskual Etxeko ekitaldi aretoan, erantsitako aktan jasotako gai zerrendari jarraikiz.

Hainbat hedabidek jarraitu zuten Parisko bilera, besteak beste: [Euskal Telebista](#), [France 3 TV](#), [Le Parisien](#), [Ireki](#), [Euskal Etxeak Digitala](#), [La Región Internacional](#), [Naiz](#) eta [Euskalkultura.com](#) Bestalde, Euskal Etxeek edo bileran izandakoek kudeaturiko zenbait sare sozialek ere hitz egin dute hari buruz.

Euskal Etxeen hurrengo hitzordua 2019an izango da, Kanpoko Euskal Gizataldeen VII. Mundu Batzarrean. Aurreikuspenen arabera Bilbon egingo da bilera hori. Bestetik, Ipar Ameriketako Euskal Etxeen eskualde bilerak eta Erdialdeko eta Hegoaldeko Ameriketakoak 2018an egingo dira.



KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEARENTZAKO ZUZENDARI GORKA ÁLVAREZ ARANBURUREN AGURRA ETA ESKER EMATEA

Kaixo lagunok:

Niretzat atsegin handia izan zen zuekin lanez bateriko bi jardunaldi partekatzea, eta guztion artean aztertzea Europako, Asiako eta Ozeaniako euskal gizataldeen errealitatea, baita ordezkaturiko 19 Euskal Etxeen esperientzien eta egoeren berri edukitzea ere.

XXI. mendeko bigarren hamarkadaren azken etapan gaude jada, eta kanpoan den euskal komunitatea, gure Euskal Etxeak bezalaxe, etengabeko bilakaeran ari da. Bilakaera azkar eta globala horretan, ezinbestekoa da egokitze gaitasuna izatea eta erantzun egokiak ematea.

XXI. mendeko euskal diasporak Europari eta etorkizun duin bat landu eta lortzeko aukera eskaintzen duten herrialdeei begiratzen die, ondoren Euskadira itzuli eta bizi proiektu sendo bat eraikitze gaitasunarekin. Aldi baterako edo behin betiko denbora tarte horretan garrantzitsua da kultura, hizkuntza eta Euskadirekiko kontaktua ez galtzea.

Arrazoi hori eta euskaldunak dauden herrialde bakoitzean gertatzen diren beste hainbat direla eta, ezinbestekoa da munduan euskaldunen "sare" bat ehotzea, euskaldun guztiek elkarrekin harremanetan jarri, gauzak partekatu eta eraikitze aukera izan dezaten. Euskal Etxeak eredu arrakastatsua dira, eta benetan merezi du haiek sustatzen eta haiei laguntzen jarraitzea, munduan diren euskaldunei babesa emateko plataforma eta gure kultura, hizkuntza, balio eta tradizioak hedatzeko gune diren aldetik.



Horretaz gain, garrantzitsua da, halaber, teknologia berriak eta Eusko Jaurlaritzatik sortu diren tresnak erabiltzea, munduko euskaldunei eta komunitateei edo Euskal Etxeei erantzunak eman ahal izateko: Basque Global Network edo euskaletxeak.net.

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendari gisa prest nago zuekin guztiekin batera lan egiteko, mundura irteten diren edo hainbat herrialdetan bizi diren euskaldunek Euskadirekiko lotura ahal bezain sendoa izan dezaten, komunitate bakoitzean sor daitezkeen premiei eta eskaerei modu egokian erantzunda.

Ez da erronka erraza, baina Parisko bileran argi geratu zen Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeek lanean jarraitu nahi dutela, etengabe egokitzeko gain izan nahi dutela, jardueraz eta ekimenez beteriko gune biziak direla, beren komunitateetan euskaldun egiten gaituen hori guztia hedatzeko gune izan nahi dutela, eta lankidetzaz inoiz baino beharrezkoagoa dela gaur.

Lerro hauei amaiera emateko, eskerrak eman nahi dizkiet Euskal Etxeei bileran egoteagatik. Eta, bereziki, Parisko Eskual Etxeari eman nahi dizkiot eskerrak dena ezin hobe atera zedin eginiko lanagatik eta eskainitako laguntzagatik. Berriz ere adierazi nahi dut egunero-egunero zuekin guztiekin lan egiteko nire konpromisoa, etorkizun ziurgabe baten ikuspegia galdu gabe, kontuan izanda guztion ahaleginak eta ekimenak batuta etorkizun hori oparoa izan daitekeela.

Txosten honek bileran planteaturiko eta eztabaidaturiko gaiak biltzen ditu, baita hurrengo urteetako gure lana gidatzeko baliagarriak izan daitezkeen hainbat ondorio ere.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARI NAGUSI MARIAN ELORZAREN ONGIETORRI HITZALDIA



KANPOAN DEN EUSKAL KOMUNITATEA EGUNGO MUNDUAN

Aurreko mendeko 60ko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkada erdialdean Pariseko Eskual Etxean sorturiko eztabaida bera sortu zaigu guri, Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeoi (baita munduaren gainerako lekutakoei ere), gaur: Benetan ari gara kanpoan bizi diren euskaldunen belaunaldi berrien premietara eta nahietara egokitzen?

Gazte horietako gehienek ez dute sentitzen beren arbasoek emigratu zutenean hiriburu handi haietan bizi izan zuten deserrotzea. Gizarte digitalean murgilduta bizi dira.

Azken finean, ez dute Euskal Etxea komunitatearentzako babesleku gisa behar. Gizarte postindustrialetako indibidualismoak bete-betean jo gaitu... baita gu ere.

GEURE BURUA BERRASMATZEA IRISTEN ARI DEN MUNDU BERRIARI EGOKITZEKO

Euskal Etxeek rol garrantzitsua bete dezakete kanpoan bizi diren euskaldunen bizitzetan, haiekin enpatiko izanda, erreferentzia eta zerbitzu sistema bat eskainita (jakin dezatela nondik datozen eta nora irits daitezkeen elkarrekin), Interneteko “klik” soil batzuekin mobilizatzeko gaitasuna duen gizarte ehuna babestuta (belaunaldiak nahasten diren ehun bat); izan ere, ondo dakigunez, blogetan, Twitterren, YouTubean

edo Facebooken eginiko iruzkin positiboak biral egin daitezke segundo gutxitan, eta besteen portaeran eragin.

Kanpoan den Euskal Komunitateak (Euskal Etxeetatik harago doana) komunikazio eta lankidetzaz ingurune bat izan behar du Interneten, horixe baita gaur egungo komunikazio kanalik handiena.

Kanpoan den Euskal Komunitatea eta informazioaren gizartea uztartzea lortu behar dugu. Aurreko mendean enpresak sortzeari edo elkarteak eratzeari eskaini genion indar bera eskaini behar diogu orain digitalizazioari, hala etorkizuna izango duen komunikazio sistema sendo bat sortzen lagunduta.

Horretarako, hartu beharreko lehenengo neurrietako bat arreta gazteengan jartzea da. Beste belaunaldiak baztertu gabe, baina haiek Interneteko belaunaldia direla onartuta.

NOLAKOA DA INTERNETEKO BELAUNALDIA, *MILLENNIAL* DEITURIKOENA

Millennials deiturikoak talde hiperkonektatua dira, teknologia oso ondo ezagutzen duena eta sare sozialetan parte hartzen duena. Internet, mugikorra, sare sozialak... tresna naturalak dira gazte horien eguneroko bizitzan; erosteko, transakzioak egiteko, produktuak eta zerbitzuak partekatzeko eta beste hainbat gauzatarako erabiltzen dituzte. Haienztzat, teknologia telematikoa erabiltzea euren bizimodua da.

Bilakaera teknologiko eta sozial hori guztia ikusita, orain arte esandakoetatik ondorioztatzen den gogoeta azpimarratu nahiko nuke: **Kanpoan diren gure gizataldeentzako topaguneak ez dira fisikoak bakarrik izango, aldiz, gero eta gehiago izango dira sarean sortzen ari diren espazio birtual horiek (ez horiek**

bakarrik noski, baina gero eta garrantzitsuagoak izango dira), **klik huts batekin eskuragarri daudenak.**

Hortaz, gai nagusia ez da euskal etxeak **salbatzea**, edo edozer preziotan **bizirik mantentzea**, baizik eta haiek **erabilgarri egitea** haien eragin eremuan bizi diren kanpoan den euskal komunitatearen zati ahalik eta handienarentzat. Eta komunitate horri zerbitzu hobea emateko, ezinbestekoa da Euskal Etxeak publiko horien premietara egokitzea, arreta berezia jarrita premia berriei, hau da, gazteen premiei.

HORREGATIK, JARDUTEKO ESTRATEGIA BAT PROPOSATU NAHI DIZUET

Bertan gozo gelditzea saihestu behar dugu. Milurtekoko belaunaldiko kideekin harreman sendoak ezartzeko garaian, ez dugu emaitza onik lortuko harik eta publiko horren premia espezifikoak eta lehentasunak ulertzen ditugun arte, eta haien kezka entzun eta ulertzeko prest gauden arte. Hala sortuko genuke enpatiazko harreman bat.

Entzun egin behar ditugu, benetan aintzat hartu. *Millennial* direlakoan belaunaldiak konektibitatearekiko eta gailu mugikorrekiko duen mendetasun handiak gaitasuna du iritzi positibo bat belaunaldi bereko ehunka mila pertsonengana irits daitekeen erreferentzia bilakatzeko. Hala ere, kontrakoa ere gerta liteke eta iritzi negatiboak hedatu...

Haien hizkuntza hitz egin behar dugu. Helburua milurteko belaunaldiaren hizkuntza hitz egitea bada, Euskal Etxeontzat ez dago haiek kudeaketa organoetan izatea baino aukera hoberik, biztanleriaren segmentu horri zerbitzu hobea emango dion ekimenak sustatzeko helburuz.

ONDORIOA

Sare telematikoak eta digitalizazioa baliatuta, Kanpoan den Euskal Komunitatea informazioaren gizarteari egokitzeko ariketa da gaur egun **bogan dagoen gaia**, baina ezin dugu ahaztu gure diasporaren iragana eta balioa.

Azken urteek aldaketa ugari ekarri dituzte. Aldaketa horien artean, emigrazio berri baten sorreraren lekuko izan gara: Bizi dugun globalizazio prozesu honetan, kualifikazio handiko jendea Asiara edo Ozeaniara joan da eta, batez ere, Europako metropoli handietara (Europar Batasuneko barne merkatua dela eta). Baina ez dezagun ahaztu XIX. eta XX. mendeetan ez zela hala izan: Orduan, gure kanpoko historiako protagonista nagusiak Ameriketara joaten ziren euskal emigranteak ziren, bai Hegoaldekoak bai Iparraldekoak.

Eta, noski, zuek, Pariseko Eskual Etxeko kideek, ondo dakizunenez, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Frantziak 40, 50 eta 60ko hamarkadetan izan zuen garapen ekonomikoari esker, langile kontingenteak iritsi ziren bertara Iparraldetik. Baita, Pirinioen bestaldetik ere, 1937tik aurrera, egoera politiko biziki zailetik ihesi.

Zuek guztiok izan zarete hiri izugarri, kulturantz eta konplexu honetako euskal presentziaren zati urte horietan guztietan. Eta, horregatik, eskerrak eman behar dizkizuegu.

Gu buru-belarri sartuta gaude gure diasporaren aldeko lanean (bai historikoa, sendo eratuta dagoena, bai berria, **likidoagoa** eta erdiesteko eta ulertzeko zailagoa dena) promesaz eta erronkaz jositako XXI. mendeko ingurune global eta aldakor honetan.

Gasteizen, 1999an egin zen Euskal Gizataldeen II. Mundu Batzarreko amaierako adierazpenean gonbita luzatu zitzaien Euskadiko agintariei eta euskal gizarteari "muga klasikoak gaindituko zituen espazio bat eraikitzeko, **lurralde birtual** bat, Euskal

Herria euskaldunak doazen lekura eramango duena; hala, **mundu mailako sare** bat sortuta euskalduntasuna babestu eta sustatzeko”.

Agindu hori XX. mendearen amaierakoa da. Gaur, XXI. mendean, Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeen bilera honetan, aurrera egitea dagokigu, hurrengo urteetan adierazitako agindua **XXI. mendeko hizkerara eta tresnetara egokitzeko**.

Eskerrik asko. Muchas Gracias. Merci Beaucoup.

AKTA



KOORDINAZIOA

- 1. Nola aukeratu Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Kontseilurako Europa, Asia eta Ozeaniako ordezkariak: Gai hori arautzeko prozedura bat ezartzeko lehenengo urratsak.**

Nola aukeratu Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeek Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Kontseiluan izango dituzten ordezkariak aukeratzeari dagokionez, ordezkariak proposatu dute ordezkari bat eta, hala behar izanez gero, haren izenean jardungo duten hiru ordezkari hautatzea.

Konpromisoa hartu dute, halaber, ordezkariak karguari eusteko bermea emateko, eta eskatu dute, ahal den heinean, behar adinako aurrerapenarekin adieraztea Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Kontseiluaren urteko bileraren data.

Ordezkaria eta hiru ordezkoak hautatzeko prozesua Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeen erantzukizuna izango da.

Proposamen hori adostu egin beharko da gainerako bi Eskualdeko Arloekin, eta Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Kontseilurako ordezkariak izendatzeko prozedura jasoko duen testu bat sortu beharko da, 2019ko berritzeari begira.

2. Euskal Etxeen Europako Federazioa: Oinarri batzuk ezartzea baterako proiektuak gauzatu eta baliabideak optimizatzeko

Euskal Etxeen Europako Federazio bat osatzeko ideia epe luzeko helburu gisa zehazten ari da. Beharrezkoa dirudi aldez aurretik Euskal Etxe guztiek jakitea beste Euskal Etxeek dituzten programen berri, eta parteka ditzaketen baliabideak aztertzea. Jarraian, sare edo federazio hori koordinatuko lukeen Euskal Etxe bat aukeratu beharko litzateke.

Hortaz, lehenago, honako hauek egin behar dituzte:

1. Elkar hobeto ezagutu eta Euskal Etxeen arteko harremanak sendotu.
2. Euskal Etxeek dituzten baliabideak denen artean nola aprobetxa ditzaketen balioetsi.
3. Basque Global Network (BGN) sarea erabili elkartzeko eta koordinatzeko gune gisa, Euskal Etxeek erabakitako lidergoekin.

BGN bezalako Interneteko eztabaidarako plataforma aktibo batek rol garrantzitsua bete dezake kapitulu honetan, Euskal Etxeen arteko ideia trukea sustatu eta proposamenak aurkezteari begira.

3. Mediterraneoko Arkuko Euskal Etxeen Sarea (Erroma, Marseilla, Montpellier, Bartzelona...).

Mediterraneoko Arkuko Euskal Etxeen balizko sare batek Europako Sarearen antzeko espiritua du. Hemen puntu nagusia hurbiltasun geografikoa da, horrek baliabide logistikoak aprobetxatzeko, jakintza teknikoak eta jardunbide egokiak

partekatzeko eta kultur dinamizazioko ekintzak (artisten emanaldiak, filmen emanaldiak, eta abar) garatzeko aukera ematen baitu.

4. Nola partekatu jarduerak Euskal Etxeen artean. Proiektu bateratuak sortzeko aukerak. Jarduerak antolatzen koordinazio “tourrak” prestatzeko neurriak.

BGN informazioa jartzeko eta trukatzeko topagunea izan daiteke (adibidez, praktikan jarri diren eta ondo funtzionatu duten ideiak, edo hainbat Euskal Etxeren artean baterako ekintzak antolatzen hasteko).

Sydneyko Euskal Etxeko ordezkariak adierazi du Parisko bileraren ostean garrantzitsuena topagune birtual bat izatea dela, bertan informazio erabilgarria eskuratzeko: Euskal Etxea ez dadila hutsetik hasi zerbait berritzailea antolatu nahi duenean.

Informazioa gune birtual batean jarri behar da (sarean nora jo jakitea), non gaiari buruz jakintzak dituenak sartu berrientzat baliagarria izango den informazioa jarriko duen.

Azken finean, helburua informazio gune birtual bat izatea da, erraztasun handienarekin Euskal Etxeen erabiltzaileen esku jarriko dituen haiei interesatzen zaizkien jakintzak eta informazioak.

Bileran antzematen dena da BGNk sarbide errazeko plataforma izan behar duela, informazioa trukatzeko balioko duena. Tokioko Euskal Etxeko ordezkariak adierazi du Japonian Euskal Herriari buruzko informazio eskaera dagoela, eta horregatik bidaia agentzien eta hedabideen eskabideak iristen zaizkiela.

Euskal Etxe guztietako ordezkariak adierazi dute BGNk eskain dezakeen zerbitzurik garrantzitsuena informaziorako sarbidea dela.

Era berean, Euskal Etxeak dituzten hirietan euskal gastronomiarekiko interes handia dago batez ere, baita euskal musikari taldeenganakoa ere (kanpoko publikoa erakartzen dute eta hori fidelizatzen saiatu behar dugu). Horiek izan daitezke Euskal Etxeen arteko lankidetzaz aztertzeko bi arlo. Horretaz gain,

zinema, ondo funtzionatu baitu Bartzelonako, Berlineko eta Bruselako Euskal Etxeetan.

5. Jardueren urteko ebaluazioa. Zerk funtzionatu du Euskal Etxe bakoitzean eta zerk ez...

Euskal Etxe guztiek eskaintzen dituzte kultur eta aisia jarduerak, bai haien kideei, bai kokatuta dauden lekuetako biztanleei, hala gizarte integrazioa eta kanpora begirako proiektzioa lortzeko.

Frantziako Euskal Etxeek eskatu dute zabal daitezela haien artean Hegoalderen (Nafarroa barne) eta Iparralderen artean sortzen hasi diren sinergiak eta indartu daitezela, halaber, hasi diren harremanak (euskararekin, kulturarekin eta turismoarekin lotuta), Marseillako, Montpellierreko, Paueko, Bordeleko eta Parisko euskal komunitateetan ez ezik, jarduera eremu formalizatuetan ere, elkarren artean harremanak izateko aukera hori ezagutzeak eragin positiboa izan ahalko lukeelako euskal komunitateak dituzten Frantziako beste hiri batzuetan.

Marseillako Euskal Etxeko ordezkariak proposatu du pizgarri ekonomikoak sortzea Europan, Asian eta Ozeanian Euskal Etxe berriak sortzeko, baita beka antzeko zerbait ere Euskal Etxea martxan jartzeko (beka horiek jasotzeak berekin ekarriko luke Euskal Etxe berriak aurkezturiko proiektua behar bezala garatzeko eta horren alde lan egiteko konpromisoa).

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIAK

1. Europako Euskal Etxeen sare birtualak (sare sozialak, webguneak): sortzea, elkarrekiko komunikazioa, tresna informatikoak, modernizazioa.

Bileran sortutako eztabaidatik ondorioztatzen den ideia da Euskal Etxeen arteko online harremana egia bilakatu behar dela: zerbitzuak emanda, edukiak

jarrira, aurkezpen argiak eskainita, dokumentuak elkarren artean landuta... Azken batean, helburua Euskal Etxeen artean interakzio maila gero eta handiagoa izatea litzateke, tresna nagusi gisa teknologia berriak erabilia. Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak proposatu du BGN izan dadila helburu hori lortzeko baliabide nagusia, eta horretarako Euskal Etxeen artean haren erabilera normalizatu behar dela adierazi du.

Era berean, Euskal Etxeek diote Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzarekin eta Euskal Etxeen artean informazio garrantzitsua partekatzeaz gain, positiboa litzatekeela Zuzendaritzak berak, ahal den heinean, Euskal Etxeei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako sailek dagozkion hirietan egiten dituzten ekintza eta/edo jarduera guztien berri, Euskal Etxeek egoera horiek baliatu eta haiekin loturiko hainbat ekimen antolatu ahal izan ditzaten. Ideia nagusia da komunikazioa erraza izatea, bai Euskal Etxeen artean, bai Euskal Etxeen eta Zuzendaritzaren artean.

2. Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeak, nola entzunarazi haien interesak ordezkaritza (plataforma) bakar batean.

Zuzendaritza mahaiak eta Euskal Etxeek ondorioztatu dute Administrazioaren eta Euskal Etxeen artean uztarketa lan bat egin behar dela; hala, lehenengoak komunikazio plataforma bat jarriko du (BGN) eta Euskal Etxeek plataforma horretako edukiak garatuko dituzte (beren interesak adierazita eta haiek bultzatuta plataforma horretan landutako dokumentuen bidez).

Hala, Administrazioak Europako, Asiako eta Ozeaniako Euskal Etxeen nortasun komun bat garatzeko prozesuan lagundu beharko luke, eta Euskal Etxeek balio bereizgarri eta estrategikoa eman beharko liokete sare digitaleko lankidetzaren bitartez.

3. Nola aprobetxatu eta bultzatu euskal kulturaren indarra (*soft-power*) Euskal Etxeetan

Tokioko Euskal Etxeko ordezkariak proposatu du lehen urrats gisa aintzatespen antzeko bat ematea euskal kulturaren alde kanpoan lan egiten dutenei: zorientzeko eskutitz bat, adibidez (pertsonek horientzat balio sentimental handia izango lukeena), edo izendapen sinboliko bat, adibidez, “euskal kulturaren enbaxadore”.

Erromako Euskal Etxeko ordezkariak ere adierazi dute komenigarritzat jotzen dutela Euskal Etxeak ezarrita dauden herrialdeetako pertsonen musu truk eta euskal kultura maite dutelako haren alde egiten duten lana aintzatestea.

DIRU LAGUNTZAK

1. Diru laguntzak: Nola aurkeztu eskabideak eta nola justifikatu

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariak iragarri du Euskal Etxeentzako 2017ko diru laguntzen deialdia ekainean aterako dela, eta horrekin batera gida labur bat bidaliko zaiela Euskal Etxeei (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) diru laguntzaren eskaera modu homogeneoan aurkezten laguntzeko, eta diru laguntza eskuratu ondorengo prozesua nola kudeatu jakiteko.

2. Diru laguntzak: Deialdiaren datak, epeak, ordainketak /// kontrolak eta ikuskaritzak hobetzea

Euskal Etxeak kexu dira eta adierazi dute hala moduz ibiltzea saihesteko eta ondo egituraturiko jardura programa koherente bat izateko beraiantzat oso garrantzitsua dela Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzak publikoki iragartzea Euskal Etxeei emango dizkien diru laguntzen lerroa garatzeko urteko kronograma bat.

Euskal Etxeek diote helburua ez dela “diru laguntzetatik bizitzea”, baizik eta urteko jardura programak diseinatzerakoan eskura izango dituzten

baliabideen hurbilketa bat edukitzea (zer finantza iturri edukiko dituzten eta noiz).

Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariak konpromisoa hartu du 2017an honako data hauek betetzeko: Ekainean diru laguntzen deialdia egitea eta % 15aren lehenengo ordainketa 2017a amaitu baino lehen gauzatzea.

3. Europar Batasunari eginiko diru laguntza eskaera bateratuak. Europako balizko diru laguntzak

Lehendakaritzaren mahaitik berretsi dute BGN bezalako Interneteko eztabaidarako plataforma aktibo batek rol garrantzitsua bete dezakeela kapitulu honetan, Euskal Etxeen arteko ideia trukea sustatu eta Eusko Jaurlaritzako eta Europar Batasuneko funtzionarioei proposamenak aurkezteari begira (proposamen horiek sakon landu ostean).

Baina Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak argi utzi du Eusko Jaurlaritzak hainbat Euskal Etxek aurkezturiko baterako diru laguntza eskaera baliozkotzeko eta dagokion Europako instantziatara bideratzeko, aldez aurretik diru laguntzarako hautagaitza lantzeko prozesu neketsu bat bete behar dela:

Idea bat izan, hiru herrialdetako hiru Euskal Etxe elkartu, txosten bat idatzi eta oinarrizko baldintzak betetzea ez da nahikoa. Hautagaitza eraikitzeko prozesua ez da gauza makala, eta oinarri analitiko eta dokumental zabal eta sendo bat izan behar du euskarri, zehatz-mehatz azaldua, Erkidegoko eskabide orriak eskatutakoaren ildotik; baina, batez ere, europar dimentsio sakon eta anbiziotsua izan behar du.

EUSKARA

1. Euskal Etxeetan euskara irakastearen garrantzia

Euskal Etxeetan euskara sustatzeko lana Euskara Munduan programaren bitartez egiten da batez ere, (orain arte HABEk kudeatzen zuen eta laster

Etxepare Institutuaren ardura izango da), eta haren muina euskara ikastaroen eskaintza eta irakaskuntza materialen lanketa izaten da.

Administrazioak bultzaturiko programarekiko paraleloan, Euskal Etxeek berezko ekimen batzuk garatu dituzte (adibidez, Berlinen eta Erroman, Alemaniako eta Italiako unibertsitateekin, hurrenez hurren) edo berezko lan poltsak sortu dituzte (gehienetan ez diete ondo funtzionatu, ezegonkortasun handia dela eta). Ordezkariek adierazi dute beren Euskal Etxeetan badagoela eskaera, baina irakasleak falta direla.

Haien ustez, Etxepare Institutuak hartu behar badu bere gain euskara kanpoan sustatzeko lan guztia (Euskal Etxeak barne), garaia da Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzaren, Euskal Etxeen eta Etxepare Institutuaren arteko elkarrizketa ondo antolatzeko, gai horri eraginkortasunez heltzeko, tartean diren interes guztiak aintzat hartuta.

2. Euskal Etxeetarako irakasleak: Nola lortu?

Gai korapilatsua da; izan ere, Euskal Etxeetan irakasle mugikortasun handia izaten da: Ezin diete nahikoa ordaindu, irakasleek beste lan osagarri batzuk bilatu behar dituzte eta, sarritan, ez dira HABEren prestakuntza prozesuan sartzen.

Euskal Etxeetan badago euskara irakasleen eskaera, baina eskaera hori asetzeko, arduradunek konponbide alternatiboak inprobisatu behar izaten dituzte (izan ere, sarritan ezin dute ezer hitzartu HABErekin edo Cervantes Institutuarekin). Hala, batzuetan beraiek egiten dituzte lan poltsak, gero sare sozialen bitartez zabaltzeko (batez ere LinkedIn), edo unibertsitateekin hitzarmenak egiten dituzte (horixe da Berlinen eta Erromaren kasua).

Argi dago Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeek arlo horretan berehalako laguntza behar dutela Administrazioaren aldetik. Hainbat arrazoi direla eta (batez ere urtarokotasun handiarekin eta finantzaketa txikiarekin loturikoak),

orain arte osatu dituzten lan poltsek ez dute ondo funtzionatu, eta Euskara Munduan programari bultzada berri bat eman behar zaio.

Labur esanda: Kanpoan den Euskal Komunitatean badago merkatua euskara ikasteko, baina ez dago irakaslerik eskaera hori asetzeko. Eta Euskal Etxeek, euskara eskolen eskaerak jasotzen dituztenak izaki, laguntza serioa behar dute, lehenbailehen.

Ondo identifikatutako jendearen izenak biltzen dituen lan poltsa bat edukitzea eta Etxepare Institutuak laguntza emango duela bermatzea gai hau hobeto egituratzeko lehenengo urratsa izan daiteke.

NOLA KUDEATU EUSKAL ETXEETAN GERTATZEN DIREN ZENBAIT ITOGUNE

1. Nola sendotu lantaldea? Nola lortu jendea zuzendaritza batzordera hurbiltzea? Nola egin dute beste Euskal Etxe batzuek?

Ez dago formula magikorik galdera horiei behar bezala erantzuteko. Parte hartu duten Euskal Etxeek adierazi dute ez dagoela errezeta magikorik jendeak erabat parte har dezan eta gauzak egiteko mugi daitezen lortzeko. Hala, ekitaldiak diseinatzeko, antolatzeko eta gauzatzeko Euskal Etxe gehienek erabiltzen duten asanblada eredu horizontalaren hainbat aldaera azaldu dituzte:

- ✓ Valentziako Euskal Etxeek batzarretik banatzen dute lana eta dagokion batzordea eskuordetzen dute, ahalik eta zatirik handiena gauza dezan. Hemen Batzarrak ezartzen ditu jarraibideak, berak diseinatzeko baitu nork egingo duen zer eta noizko dioen kronograma.
- ✓ Bordelen antzeko egitura bat dute, baina formalizatuagoa, hala *bureau* edo bulego bat dute eta han profilatzen da ekintza, eta gero lantaldeek gauzatzen dute.

- ✓ Berlingo Euskal Etxean jende guztiari irekitako saioak egiten dituzte (baita Euskal Etxeko bazkide ez direnei ere), ideia berriak jasotzeko. Dena dela, bilera horiek ondo prestatu behar dira, eta denbora eta ahalegin handia egin behar da bilera horietatik praktikan jar daitezkeen ideia baliotsuak ateratzeko.
- ✓ Pariseko etxearen egitura gaikako taldeen federazio batena da. Bata euskarakoa, bestea dantzakoa, abesbatza mistoa, egoitza (indargune garrantzitsuenetako bat), errugbi taldea, eta abar.

2. BREXITaren eragina Londresko Euskal Etxean (Londres Europar Batasunetik kanpo geratzeak izango dituen ondorioak).

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak jakinarazi du Eusko Jaurlaritza hurbiletik ari dela jarraitzen Brexitarekin loturiko gertakariak, eta harremanak izan dituela eraginpeko erakundeekin eta eragileekin, izan ditzakeen kontrako eraginei aurrea hartze aldera.

Hartu eman horien ondorioz, izaera publiko-pribatuko jarraipen batzorde bat eratu da. Batzorde horretan ordezkaturik daude Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarteak), Euskadiko unibertsitateak, merkataritza ganberak eta Pasaiaiko eta Bilboko portu agintaritzak.

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren bulego bat ireki da Londresen, hainbat motatako euskal enpresa, ikastetxe, kultur erakunde eta elkarten interesak bermatzeko erantzukizuna duena.

Helburua da Euskadiren erronka eta aukera nagusiak identifikatzea, eta hala, lehenengo negoziazio aldiari aurre egitea ahalbidetuko duen estrategia bat zehaztea. Prozesuaren amaiera, noski, Erresuma Batuaren eta Europar Batasunaren arteko "dibortzioa" izango da, 2019an, eta haustura horretatik sortzen den agertokia.

BESTE BATZUK

Berlingo Euskal Etxeak proposatu du Europa, Asia eta Ozeaniako Euskal Etxeek bilera egin dezatela urtean behin, erakundeen presentziarik gabe.

